


# ARTEA DONOSTIAN

## IBILBIDE ESKULTORIKOAK



# GARAIKIDEA: INTXAURRONDO

**8** Oeko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza publikoaren sustapena egin zuen. Horrekin lotuta, artista garaikideei eskulturak enkargatzea eta horiek ikusgai jartzea erabaki zuten. Arte garaikidea gizarteko arlo guztietara gerturatu nahi zuen horren bidez. Horri esker, gaur egun, eskultura garaikide ugari ikus dezakegu Intxaurrondo auzoan.



### 1 **MONOLITO** (1990)

Equipo 57 taldea

**Juan Cuenca** (Kordoba, 1934), **Ángel Duarte** (Cáceres, 1930), **José Duarte** (Kordoba, 1928), **Agustín Ibarrola** (Bizkaia, Basauri, 1930), eta **Juan Serrano** (Kordoba, 1929).

Enkargua 80ko hamarkadan egin zuten arren, Equipo 57 taldeak, Agustín Ibarrolaren bidez, 1963an proiektatutako lana aurkeztu zuen.

Bere lanen bidez, Equipo 57 taldeak pertsonen bizitza aldarazi nahi zuen. Kolektibo horren ustez, kaleko artea pertsonena da eta hiriko paisaia aldarazten du.



**2 SILUETAK (1988-89)**

**Agustín Ibarrola**  
(Bizkaia, Bilbo 1930)

Agustin Ibarrolaren eskultura honetan, altzairu zurruna pertsonen siluetaekin batera azaltzen da. Siluetek beren egiten dute espazioa eta bertan bizi eta oinez dabilzan pertsonekin batera azaltzen dira. Artistak eta arkitektoak elkarrekin egin zuten lan espazioa garatzeko.



**3 UME-JOLASA (1991)**

**Agustín Ibarrola**  
(Bizkaia, Bilbo 1930)

Hasiera batean, Eusko Jaurlaritza Ricardo Ugarterekin jarri zen harremanetan urmael batean artelan bat egin zezan. Azkenean, alderdiek ez zuten akordioa adostu eta Agustin Ibarrolak enkargatu aurretik eginda zegoen lana jarri zuen han. Bertan, trenaren zeharragek osatzen duten karratu baten mugimenduarekin “jolas” egiten du.



**4 FORMAK HAZKUNTZAN (1994)**

**Koldobika Jauregi**  
(Gipuzkoa, Alkiza 1959)

Eusko Jaurlaritzak eraikitzeko etxebizitzaren sustapenari lotutako eskultura garaikideen multzoa itxi zuen lan horrek.

Lan hori Koldobika Jauregiri, Eskulturaren Euskal Eskolako eskultoreen bigarren belaunaldiko kideari, enkargatu zioten. “Formak hazkuntzan” eta “Monolitoa” lanek ardatz eskultorikoa osatzen dute, eta gainerako obrak horren gainean egituratzen dira.

Eskultura horrek hazten ari den erdiko totemera gerturatzen diren animalien zatien formekin egiten du jolas. Formen mugimendua materialaren gogortasunari kontrajarritza dago: leundu gabeko marmola.